**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Kultura**<br>**04. *Cultura*** | **03.** Kirola<br>**03.** *Deporte* | **450.206** Udal Kirola<br>**450.206** *Deporte Municipal* |

"Udal Kirolaren" eremuan, Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak helburu nagusitzat hartu du Bizkaiko udal eta mankomunitateekiko koordinazioa eta lankidetza sustatzea, herritarrek gorputz jarduera gehiago egin dezaten, eta bitartekoak eskaini nahi ditu jendeak kirol jarduera jarraitua eta segurua egin dezan, ingurumena eta gure kultur ondarea errespetatuz.

Helburu horri begira, agintaldi honetarako zenbait jarduketa-ildo ezarri dira:

- Udalen kirol azpiegituren kalitatea hobetzea.
- Bizkaiko udal eta mankomunitateak koordinatzea eta eurekin lankidetzan jardutea.
- Kirol jarduera seguru eta osasungarriaren beharraz ohartaraztea.
- Bizkaiko biztanle guztiei erakustea gorputz jarduera eta kirola egiteak onura fisiko, psikiko eta soziologikoak dakartzala.

Eta jarduketa ildo horietariko bakoitzean hainbat ekintza antolatuko dira. Hauexek dira Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak 2013ko ekitaldi honetarako ezarri dituenak:

a) Herritar guztientzako kirola bultzatzeko jarduketak.

Helburua herritar guztiek parte hartzeko moduko kirol eta jolas ekimenak bultzatzea da, Europar Batasunaren gomendio hauek aintzat hartuta:

- Kirola egin ahal izatea herritar guztien eskubidea da.

- Kirola tresna gisa erabili behar da jendea

En el ámbito del "Deporte Municipal", la Dirección General de Deporte y Juventud se ha marcado como objetivo general impulsar la coordinación y colaboración con los ayuntamientos y mancomunidades bizkainos al objeto de aumentar los niveles de actividad física de la población, proporcionando medios que permitan la práctica deportiva continuada, segura y respetuosa con el medio ambiente y nuestro acervo cultural.

Para lograr dicho objetivo se han definido para esta legislatura varias líneas de actuación:

- Mejorar la calidad de las infraestructuras deportivas municipales.
- Coordinar y colaborar con los ayuntamientos y mancomunidades de Bizkaia.
- Concienciar sobre la necesidad de practicar deporte seguro y saludable.
- Sensibilizar a la población bizkaina en general de los beneficios físicos, psíquicos y sociológicos consecuencia de la práctica de actividad física y deporte.

Y, a su vez, múltiples acciones que se corresponden a cada una de ellas. Para este ejercicio 2013, éstas son las que la Dirección General de Deporte y Juventud tiene previsto ejecutar:

a) Actuaciones tendentes a fomentar el deporte participativo.

Se busca fomentar iniciativas deportivo-recreativas abiertas a la participación de toda la ciudadanía, respondiendo de este modo a las recomendaciones de la Unión Europea en el sentido de:

- Contribuir a que el deporte sea un derecho para toda la población.

- Hacer del deporte una herramienta de

gizarteratzeko, hezkuntzarako eta aisialdian jarduera osasungarriak egiteko.

b) Kirol-partaidetzaren praktika sustatzeko sentsibilizazio-kanpaina; jarduera fisikoaren inguruko jarraibideak, orientazioa eta aholku praktikoak emango dira.

c) Kirol medikuntzako unitate mugikorra.

Bizkaiko udalen kirol instalazioetan partaidetza-kirola egiten duten pertsonei arreta eman eta kirol medikuntzako osasun azterketak egin nahi zaizkie, kasuan kasuko udalak eskatuz gero.

d) Kirolbide egitaraua.

Kirolbide egitarauaren bitartez, udaletako kirol agenteen prestakuntza hobetu eta eguneratzeko bultzada eman nahi da.

Kirol erakundeen kudeaketaren kalitatea hobetu egin nahi da egitarau horren bidez, batez ere udal erakundeei, federazioei eta kirol klubei dagokienez, eta kirol bikaintasunaren mailak igo nahi dira. Horretarako:

e) Udalen arteko koordinaziorako tresna informatikoak.

e.1.- Kirol topaketarako Kirolbideweb ataria mantentzea.

2007ko ekitaldian kirol topaketarako ataria sortu zen, Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiaren web orritik eskura dagoena. Erreferentzia gune bihurtu da kirol eremuaren barruan eginkizun desberdinak dituzten pertsonentzat (politikariak, teknikariak, profesionalak, amateurrak eta herritar guztiak). Atari honetan biltzen dira kirolari buruzko informazio jakingarri guztiak,

integración, educación y de práctica de ocio saludable.

b) Campaña de sensibilización dirigida a fomentar la práctica de deporte participación, proporcionando guía, orientación y consejos prácticos vinculados a la actividad física.

c) Unidad Móvil de Medicina del Deporte.

Se pretende atender y efectuar reconocimientos médico-deportivos a las personas que realizan deporte participación en instalaciones deportivas municipales de Bizkaia, previa petición del correspondiente Ayuntamiento.

d) Programa Kirolbide.

El programa Kirolbide consiste en una serie de actuaciones dirigidas a activar la mejora y actualización de la formación de las y los agentes deportivos municipales.

Pretende mejorar la calidad de la gestión de las entidades deportivas, especialmente las municipales, las federaciones y los clubes deportivos, elevando los niveles de excelencia deportiva.

e) Herramientas informáticas para la coordinación intermunicipal.

e.1.- Mantenimiento del portal de encuentro deportivo Kirolbideweb.

En el ejercicio 2007 se elaboró un portal de encuentro deportivo, accesible desde la página web de la Dirección General de Deporte y Juventud, que se ha convertido en un punto de referencia para las personas con diferentes roles dentro del ámbito del deporte (políticos, técnicos, profesionales, amateurs y público en general). Este portal concentra toda la información deportiva relevante,

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Kultura**<br>**04. *Cultura*** | **03.** Kirola<br>**03.** *Deporte* | **450.206** Udal Kirola<br>**450.206** *Deporte Municipal* |

ondoko arloetan sailkatuta:

- Agenda: jardunaldiak, azokak eta jarduerak.
- Laguntzak.
- Kontratazioa.
- Kirol enpresak.
- Trebakuntza eta enplegua.
- Arautegia.
- Berriak.
- Nazioarteko kirola.
- Argitalpenak eta ikus-entzunezkoak (atari honek badu panel bat web orriaren erabiltzaileek ematen dituzten informazioak biltzeko).

Gainera, atal batean euskal kirolei eta euskal selekzioei buruzko informazio estatikoa dago. Astean behin buletin informatiboa bidaltzen zaie webgunearen harpidedunei.

e.2.- Bizkaiko Lurralde Historikoko kirol instalazioen errolda mantentzea eta eguneratzea, beharrizanen diagnostikoa egin ahal izateko.

e.3.- Beste tresna informatiko batzuk. Kirol kudeaketan inbertitu diren baliabideak arrazionalizatze aldera.

ordenada atendiendo a las áreas que se relacionan:

- Agenda: jornadas, ferias y actividades.
- Ayudas.
- Contratación.
- Empresas deportivas.
- Formación y empleo.
- Normativa.
- Novedades.
- Deporte internacional.
- Publicaciones y audiovisuales. (Este portal incluye un panel de recogida de información aportada por los usuarios y usuarias de la web).

Además tiene un área de información estática sobre los deportes vascos y las Selecciones Vascas. Semanalmente se envía un boletín informativo a los suscriptores de la web.

e.2.- Mantenimiento y actualización del censo de instalaciones deportivas municipales del Territorio Histórico de Bizkaia, en aras a la realización del diagnóstico de necesidades del Territorio.

e.3.- Otras herramientas informáticas, con el objeto de racionalizar los recursos invertidos en gestión deportiva.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Kultura**<br>**04. *Cultura*** | **03.** Kirola<br>**03.** *Deporte* | **450.206** Udal Kirola<br>**450.206** *Deporte Municipal* |

f) Lankidetza udalekin kirol azpiegiturak direla eta.

Gure asmoa Bizkaiko udalekin, udalen kirol erakunde autonomoekin eta mankomunitateekin lankidetzan aritzea da udalen eta mankomunitateen kirol azpiegituren mantenimenduan agertu diren beharrizanak asetzeko.

f) Colaboración con los municipios en materia de infraestructuras deportivas.

Se pretende colaborar con Ayuntamientos, Organismos Autónomos Municipales de Deportes y Mancomunidades de Bizkaia atendiendo a necesidades evidenciadas en el mantenimiento de infraestructuras deportivas de carácter municipal o mancomunada.